



Zurriolako Ataria

75. alea

2019-10-25

LH3koak artea & lemon cake-a!

Beti bezain kontent, LH3ko ikasleak hainbat eginkizun aipagarritan aritu dira aste honetan. Alde batetik, Arte Hezkuntzako saioan birtziklatutako materialekin [erakusketa](#) bat osatu dute. Eta, bestaldetik, ingeleseko saioetan landutako [errezeta](#) jaki goxo bihurtu dute. Beraz, erakusketa eta lemon cake!



Oso hurbil dugu Usurbil - LH4

Donostialdea hobeto ezagutzeko asmoz, LH4koak trena hartu eta Usurbilera joan dira. Ederki pasa dute Zumetaren artelanak ikusten eta Atxega jauregia ezagutzen.




DBH1-2ko ebaluazio sistemaz informazio-saioa

Kompetentzietan eta ebaluazio integralean oinarritutako ebaluazio sistemaren azalpen-saioa burutuko da **azaroaren 6an**, asteazkenez. Hurrako jangelan 17:15ean egingo den gurasoentzako saio honetan, besteak beste, buletin berriaren azalpena egingo da.



DBH3koak antzerkian

Gaur DBH3ko ikasleak Zaldi Urdina antzezlana ikusten izan dira Egiako Gasteszenan. Bertan Aingeru izeneko 17 urteko gazte baten eta bere inguruko gorabeherak kontatzen dira. Asko gozatu dute Ximun Fuchs-ek zuzendutako antzezlana eta aktore eta idazleek egindako lan bikainaz. Bertan beste ikasleekin aurkitu ahal izan dira gainera. Ez galdu antzezlana ikusteko aukera, iganderarte bertan izango dira eta!



Gau Beltza badator

Datorren asterako proposamen batekin gatzokizue. **Urriaren 31aren** inguruan ospatzen da *Gau Beltza* Euskal Herrian. Hori dela eta, ohitura zaharrak berreskuratu nahian, jaia berrasmatzeko proposamena lantzen ari dira herriz herri. Webgune [honetan](#) duzue informazioa, ekintza proposamenak eta hainbat baliabide beste hainbeste euskarritan.



OHARRAK / AGENDA:

- Eusko Jaurlaritzako beka: HH2tik GKAI2ra. Epea: Urriak 29. [Oroigarria](#).
- HH2: Guraso bilera orokorra. Urriak 29. 17:15. Ikasgelan. Soroako [antolaketa](#) orokorra. [Txostena](#).
- HH2 - Helduen Danborrada: [Zirkularra](#).
- HH3: Gladys-Enea. Goiz pasa. Urriak 30. 9:00etarako etorri.
- LH3: Lore baratzara irteera. Goiz pasa. Urriak 30era atzeratuta.
- Haur Danborrada - LH1, 3, 4 eta 5: [Zirkularra](#).
- DBH4 - Biologiako ikasleak: Flysch-era irteera. Egun pasa. Urriak 29/30.
- BATX1 - Ekonomiako ikasleak: Zinetek Orona Fundazioan. Urriak 29.
- 2018an jaiotako senideen aurrematrikulazioa: [Galdetegia](#)
- Helduen Danborrada: [Izena emateko orria](#) (partaide zahar eta berriek osatzeko).
- Eskola kirola: 2. Jardunaldia. A eta B. LH3ko [taldeak](#).
- Parketarrak: Egunik onenak [elkarrekin euskaraz joalsean](#). [Informazioa](#).
- Aisialdiko jarduerak haurrentzat: [Urriak 26-27](#).
- Oharra: Datorren astean ez da "Zurriolako Ataria"rik izango.

